

## Ametsak

Orriak pasa eta pasa,  
zer dioten konturatu gabe.

Hitzak,  
esaldiak,  
konbertsazioak.  
Aditu bai  
baina entzun ez.

Ahoak barrezka,  
begiradak...  
Auskalo non galdu diren begiradak.  
Bizitza badoa aurrera.

Egunak,  
asteak,  
hilabeteak.  
Pasa dira nahikoa,  
baina jarraitzen dute aurrera.

Eta bitartean zu...  
Zu, non zaude?  
Non zaude, gu zure txisteez barrezka ari garenean?  
Non zaude, liburuek negarra eragiten digutenean?  
Non zaude?

Beti zerura begira,  
begiak irekita,  
baina lotan egongo bazina bezala.  
Ametsetan?

*Orri bat,  
gero bestea.  
Ezer interesgarririk ez, ordea,  
horrenbeste hitzen artean.*

*Jendea beti barrezka,  
zergatik egiten dute barre?  
Nik leihotik begira jarraitzen dut.*

*Eta hor dabil mundua,  
bira eta bira,  
beti berdin.  
Zelako aspergarria.*

*Bitartean ni,  
ni ez nago hor,  
zuekin,  
hala badirudi ere.  
Nik neure mundu propioa eraiki dut.  
Errealitatek ihes egiteko.  
Ametsetan.*

Kontuz, bada.

*Zein, ni?  
Kontuz, zergatik?*

Arriskutsua da  
ametsetan bizitzea.

*Esna iezadazu orduan,  
mundua nire ametsetan bezalakoarena.  
Errealitatean bizitzeak  
merezi duenean.  
Orduan bueltatuko naiz,  
eta biziko naiz zoriontsu.*

Baina,  
zuri ez al dizu bada inork erakutsi  
ametsak ez direla inoiz errealitate bihurtzen?  
Etorkizuna ez dela existitzen?

Oraina baino ez dago.  
Horregatik bizi behar dugu gaur;  
bihar ez delako inoiz izango  
guk espero duguna.  
Etorkizunean hau, etorkizunean bestea...  
Baina hura existituko denik ere ez dakizu.

Gaur da balio duen  
unea.  
Gaur da gaur.  
Gaur.

*Baina...*

Beti berdin, diozu?  
Ireki begiak.  
Begira ezazu zeure ingurura.

Uki ezazu,  
dasta ezazu,  
senti ezazu.  
Arnasa sakon hartu.  
Eta esaidazu,  
noizbait sentitu al zara horrela?  
Ez.  
Eta inoiz ez zara berriro horrela sentituko.

Pozik,  
triste.  
Liluratuta,  
aspertuta.  
Hunkituta,  
nazkatuta...  
Dena dela.

Une bakoitza,  
elur maluta bat bezalakoa da.  
Bakarra.  
Biziki dasta ezazu,  
urtu eta betiko desagertu aurretik.

Beraz, lagun.  
Ahaztu etorkizunaz,  
iraganaz.  
Bizi orainaldia.  
Izan ere,  
sinets iezadazu,  
errealitatea edozein amets baino hobe da.

Apustu egingo nuke ez zenukeela nahiko  
ametsen batean kateatuta gelditzerik.